



**Bizkaitarrei  
Bizkaieraz**



[www.euskerazaleak.biz](http://www.euskerazaleak.biz) • [info.euskerazaleak@gmail.com](mailto:info.euskerazaleak@gmail.com)

# Landajuela, Anton V.



**Euskerazaleak Alkartearen  
urteko batzar nagusia**



**Izadia zaindu III**

# Euskalerrian euskeraz EUSKERAZALEAK

## 2012-2013 IKASTURTEA

### BIZKAIERAZ 45. IKASTAROA IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: astelen eta eguasten  
edo astearte eta eguenetan  
Orduak: Goiz, arratsalde eta gabetan  
Ordaña: 150 €  
Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2  
urrutizkiña 94 423 53 22  
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 8an

### 45. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES Y CONVERSACIÓN

Días: lunes y miércoles  
o martes y jueves  
Horas: Mañana, tarde y noche  
Curso completo: 150 €  
Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2  
Teléfono 94 423 53 22  
Bilbao 48001

Comienzo: 8 de octubre

## ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:

**EUSKERAZALEAK  
BILBAO BIZKAIA KUTXA  
2095 0000 74 2000089615**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!**  
Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 30 €.  
Ez dozu ezer be idatzi bear.  
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errokoa.  
Eskerrik asko!

## Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.  
48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Salla  
Departamento de Cultura

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

Diseinua, maketazioa  
eta inprimaketa: Ibegrafik  
www.ibegrafik.com

# LANDAJUELA, Anton, V.

## Dagonillaren 13gn eguna zala uste dot, Pikoketa-ko eguna.

Pikoketa-tik Erlaiz-erako bidetan joan gintzaza gosez da egarriz. Bideak eta bideetan joan da joan eginik, aitz-mustur baten ganean zelatari lau lagunek gaba emon genduan, otzearen otzez aika ta oika; kapote zarrekin babestokia eginik eta erdi ortoz, al genduan eran.

Egunak bero-beroak, otz-beroan aitzakirik bageak izan ziranarren, gaba otza izan zan. Gabaz gengoan aitz-musturraren oinlekua otaz da sasiz josia izanik, oñetakoak be kendubrarrez izan gintzazan, gabeko iñontzetik legortuko ba-ziran.


Eguna agertu zanean, gu be beragaz batean gertakizunetan, aintzin eguneko jaki-kondarrez esteontziari bete antzeko bat egiten. Izenik eztakidan mendi aretatik, Erlaiz-ko guda zelaira abiatu gintzazan.

Begoña-ko Amaren egun andia zan, eguberdi aurrean tiroka gintzazan. Etxe bakar bat egoan, eta aren ondotik berun zaparrada izugarria etorkun, gudari ta erreketari.

Gorriak larririk izango ziran da gu bere estu, baiña ekiteari ekiñik, atzen batean garaitu genduzan.

Batenbateri eskerrak zor neuntzazan, gure alfereza zulotu ebanari; zauriturik egoan tokitik babeslekura atzeratu, eta ura eskatuten eban azkero, basoan beera egoan zuloraño joan giñan bi lagun astitsu, eta biurtu giñaneko sua amaiturik egoan, berunen zaparada ikaragarria.

Izan genduan illik eta zauriturik gure aldetik; Meabe-rriko Lanbarri koartelean besoa jaso ebana be, Erlaiz-en il zan; bai-ta be Santurtzi-ko Kabie-



zes-ko zan Lanzagorta. Biak jausi ziran betirako, alkarren ondoan.

Erreketek ziranakaz batera samar ibiliarren erreketek izaten ziran beti-ta-beti aurrelari, eta il ziranak eta zaurituak nortzuk ziran ikusi ta gero, Erlai-ko etxeingurura igon gintzazan, an zer egoan ikustera. Karabinero bi izan ziran lurrean zerraldo zerurantz begira, arnasa barik eta odolez blai-blai. Illik egon ziran gizon bi areik izan ete ziran ba, gure alderdikoai ainbeste il eutsozoenak? Bi baiño geiagorik izango ziran, baiña guk besterik ez genduan ikusi.

Gudaketarren aurrea Erlaiz-en gelditu zan eta, bertan egon zan etxean egin genduan etzauntza. Militarren artean izaten dan nai-ta-naiezko eginbearra, disziplina ori, ezan gogorregia, eta guardia egitetik aske gintzazan batean galiziarra ta biok, arratsalde batez mendirik-mendi eta tontoretik-tontor erreketek egozan lekuetatik zear ibili gintzazan. Ondo eta abegi onez artzen ginduezan izan gintzazan etxola ta txaparpeteetan. Eguna argirik egoan, da, otu jakun urrin baten egoan etzauntzaraño, joatea. Joan gintzazan, ba-ta, ardauaz ondo artu ginduezan, an bere. Eta an, bee batean, ibaia zan agiri, eta zein ibai zan guk itauntzean, Bidasoa zala, erantzun euskuen.

Illunabarra baño lentxoago biurtu gintzazan geurtzat geunkan etzautzara-eta, larriturik egozan lagunak alde egitera joan ete giñan edo. Nondik eta noraño joan giñan esan geuntzanean, iges naia be agertu, eta Bidasoa be non zan azaldu...tximis-tea baño biziagotu gintzazan amar igeslariok.

Apalordu zan, azpillak eskuan arturik, eta bein apaldu beratxo egoan urjaiotzara azpillak garbitzera joanik sasi tartean ezkutatu.

Jan genduan, alkartu eta erabagiak eginik geunkazen lez anka egiteko garaia zan. Bi geiago bear genduzan-da, zelatari egon zanareraño, joan nintzakion dei egitera. Au alde eginik egoan, be bat beargenduan-da, Andres Lagatxa-rengana jo nebana. Erlaiz-go etxean ari zan erdi nagusi bategaz urrengo egunerako jakiak gertatzen-da, nik aulanean berari: ator Andres, kortako bedar legortuan jaukat abia lo-egiteko. Eta nagusiari Andres-ek irugarrenez iñotzan: Ezer besterik? Eta barriro be, nagusiak; Bai, kutxatxo oneik eroa ara-eta, andagozanak ona ekarri.

Ezin neikean asti geiagorik galdu-eta, Andres bertanbera lagarik eta txispea lepoan, anka egiteko gogoz betean aldendu nintzakion itxaroten egon ziranen lagunakana.

Zenbat orduko bide izan ete genduan?. Egunez, bideziorretati eta pekaturik gabe, ordu bateko bidea, ortxe-ortxe. Illundurik bidean jarri gintzazan, sasia, ota, ta txarrea oñakaz zapalduz goizeko argiabarra baño lentxoago gengozan Bidasoa-ren ertzean.

Ezgenduan biderik ikusi, upea baño illunago, eta kanpotetatik, atxiloturik ibili giñan ez galtzeko, goian egozan erreketean bildurrez. Izerdi bitsetan gendozan da, txaratartean ezkutatu gintzazan illaneko orduak eta etorriko ziran egunaren orduak sasipean igaroteko ustez.

Bederatzi itzunik lurraren ganean lo-izkia egiten, amargarrena itxarrik eta zur gu zaintzen. Taxugabeko itzunean epe labatean emon genduazanean, batzuek itxarrik eta besteak be lotan e barrien barri lengo ekiñari lotu giñikozan eta aurre jo. Ibilli eta ekin, ekin da ibilli, zugarria egoan zelairaiño eldurik, berebiliren argi bakarria ikusteko zoria izan genduan. Bitxabala, be, ezegoan urrin.

Goazen aurrera, izkilluak bete genduzan, zer izango zan bere. Eta zelatarien batek alto! esaten badausku? Egunaz batean gure nagusiek aurreruntz joteko asmoa dabe-ta, emendik zer gertatzen dan jakitera bialdu gaitue, ori izan zan asmau genduan erantzuna.





Bitxabalaren ertzean karabinroen txabola-eta, aren ondoan zugatz izan zana, igerturik eta abar barik, taketa balitzan irmo eta tinko.

Or dogu zalatuko gaituna. Izkilluai beso ta esku biakaz eldurik aurrera jo gendan zer gertuko ete jakun izuturik.

Bidean gengoan da, bidean gora joanik zaldia urten zan bidera zugatzartetik. Erreketeen bat ete zan, dardar gengoan.

An ezan erreketarik ez deabrurik, eta bidean gora ibillia barrero bere atzeruntz eginik, eta ibaiara jatsilekua aurtitu gurarik, uraren zurrusta entzun genduanean, emen dok lekurik egokiena esan da, atak ba-giñan lez bidetik, sasitik, urartera brinko egin genduan. Mendien gibelean oraindiño ez zan ikusten goizaldeko argiaren izpirik, illuna zan dana eta errekea be ezezaguna. Garrirañoko ura, izkilluen tutuaz bidean lagundurik eta oinpeak aregaz arakaturik igaro genduan gezurrezko muga mada-rikatua.

Prantzia-n gengoan, basoan gora giñoazan lañopean erreketek begipetik galdu arte. Areiz-tian ezarririk arnasa baketzeko eta urrin batera so egitean, erreketen kabiak ikusten genduzan suaren ketan da, beste batzuek bizitzaren lorra-zik barik. An ziran baiña danak, aurregunean ondo ta begirapenez artu ginduezan napartar erreketek yaioak.

Bidean aurkituriko zugatzartean ezkutaturik txispa ta guda enparauk, eta, euki genduan ogi pitia janez gero, basoan gora giñoiazan.

Iñor ez-ezan agiri, ez karabinerorik ez artzaiñik eta, ez baserririk ez genduan somatzen da, basoan beera goiazen. Tontorretik beratxoago eta basoaren goian baserri bat aurkitu genduan, bertako senar-emazte gazte ta, Bera'ko mutil-koskorra bat etxean eukelarik. Iruña-ko Goñi gure lagunak erderaz itzegin eutsoen zer edo zer ulertu arasoteko, baña andra-gizon arein erantzuna, alkarri begiraturik irriparrea izan zan, ezeben ezer ulertuta. Euskaldunak ziran, da Bera-ko mutillari deiturik, eta onek nigaz euskeraz eginik, poliki ulertu genduan izan genduan autumutua, gaur dakidan baño eske-  
ra gitxiago jakinarren.

Erritxuaren izena Urruña izan zan, da baserri aretan jaso genduan nora bideari jarraituz, eta erriburuan sartu gaberik, arratsaldez goizetik Endaia-n giñan.

Soloetako munetatik, bide ta baserrien tartetatik oñez goazan estu eta larritasun andirik barik, ta etxe andi bakar batetik igarotzean etekoandrak deitu ginduzen jatera gora igoteko, besteen batzuk be antxe, etxe artan bazkaldu ebela-ta. Izan ebezanak emon euskuzan. Andrazko egin ebanaz arrorik eta gu pozez gintzazan.

Gurpide batetik aurrera giñoiazanean atso-agura zarrak eta andrazkoa bide bazterrean aurkiturik, nongoak gintzan galdetu euskuen. Euskeldunak

ziran, da nik esan Bidasoa-ren bestekalde gintzazela, illa bete onetan gudaketan diardogula ta, iges egiteko ordua iritxi zaigula.

Alaba edo dana zalako andrazkoa etxera igonik gazta, ardo ta ogiz berretoririk, ama zarrak iñozkun; «Bai, gura be, Berdun-en il eukuen semea».

Bidezabalera urten giñan da emen, berebil gaixotuen baten billa berebil txiki bategaz etorren gizonak aurkitu ginduzan da, berari itxaroteko, Endaia-ra lagunduko gaituala ta.

Txoferrari, eroatzalleari itxaroten gengozeanean, senar-emazte prantesak etozan egurastera, eta oneik be, gure soñeko zikinak ikustean, erdi gaztekeraz eta erdi prantzesez zerbait esan euskuen; guk bere adiarazo geuntzan zer edo zer, diru batzuk emon euskuezan da, agur t-erdi gaur arte.

Atzean beste bat loturik ekarrilarik, biurtu zan berebilduna, beragaz batean egin genduan Endaia-ra sarrera. Eta Endaia-n gengozeanean surpean bizer andidun txinelak arpegi txordoz gure bidelaguna artu eben. Bultzigeltokira Endaia-n, gaua ta biaramon egunaren zati on bat eginik, Baiona-raño eroan ginduezan.

Ainbat eta ainbat gizona etorkusan Endaia-n, Espaiña-n zer gertatzen zan jakin gura andiz; eta etorran bakoitxak ogibitarteko, txokolate ta kebelar emonaz milla galdera egiten ekian oiz.

España-ko Gobernuaren ordezkaria ta zenbait gizona etorkuzan, Endaia-n gintzazanean, da ordezkariak iñozkun, millak gizon bazirala izkillu barik eta ezgiñala mendira joango. Irundarrek ostera nondikoak gintzazan, batetik bestera non igarro eta gure gudastresnen barria eskatzen euskuen. Esan geuntzen, ba eta, bereala aurkitu, Prantzia-ko areistian, Bisaoa igarorik laster batean.

Bultzaturik gagoz, Baiona-ra garoardiez. Etxe andia da gure egonleku, prantzitan gudari gitxi batzuek be bertan, etxea zaintzen. Inguru aretan bizi izan zan asturiastarrak emoniko kaleko soñezkoz jantzi gintzazan. Etxetik at, kaleratzeko be eskubidedun giñan.

Iru bat egun Baiona-n emoten genduazanean, andra andi ta ederra urreratu jakun, Espaiña-n zer jazoten zanarentzat itaunak egitera, batez bere Iruña'ko Goñi-ri. Iruña ondo ezagutzen eban andra arek, Goñi-ren sendikoen batzek be, bai, eta beraren etxera joan gintzazan nai eban, emen zer edo zer argituko zan arte. Iruñarrak bayeta, besteak ezetz.





Iruñar Goñi eta galiziarra, ule-bizar-moztularia au, an Prantzian zer izango zan arte, bizitzea erabagi eben. Bateren da bestearen barririk, arrezkero, eztakit.

Etxe andi artan Baiona-n gengoanean, gudari euskeldun bi etxe aren zain izan ziran, areitako bat baserriko semea, ta bere etxera joateko esan eustan, etxeko lanak nork eginik ez eukala ta. Ez baiezkorik eta, ez ezetzkorik ez neuntzan azaldu.

Eta alan gintzazanean, Irun-dik gizon bi Errepublikaren alderdira ea etorri gura bagendun. Esan da egin. Gauren beranduko orduetan bultziratu gintzazan, asturiastarren alabak mosu andi erder bana emonik. Aitaren da amaren aurrean a egiteak suturik, izuturik itxi ginduzan.

Agur Baiona, agur Endaia ta Bidasoa-ren goialdeko Euzkadi maite, etorriko diran 42 urtetan etzaitut geiagotan ikasiko.

Iritzi gintzazan Irun-era lekaidetxe andi bateraño, lurra betean dagoz gudariak etzunik. Ezegoan oeik ez antzekorik be, lo non egitekorik eta, onuntz etorri gintzazan zazpirok alkarren ondoan etzun gintzazan.

Biramon eguna urian emon eta, gauean, ango mendien baten gudarien eza egoalarik, bateri ta besteari deika asi ziran, eta aulan erantzuten eben, gudari gaixo areik: «Joan diran gau bitan lorik egin barik nago». Bateri ta besteari deitzuen etorri zan nagusia igesian etorri gintzazan zazpirok gengoan lekuraño. Eta gu, ez nagi, jaso ta mendirako bidean jarri gintzazan, artarako gerturik egozan batzuekin batean.

Gengoan etxe aretan, areto andi ederra su-izkillu, geienak ganera andirik bakoakaz, Erdi orniduta. Fusilen batzuk be bai egozan da, alako bat eskuratu neban, Bidasoa igarorik basoan ezkutatu nebana berbera; zaugarri lez, ugelean eukan tiroa eta zenbakia izan zituan ezaugarrienak. Gaua ta eguna basoan emonik barrero erriratu gintzazan, baña mendian izan gintzazanean, eta gure aurrean eta beratxoago illik egoan Guardia de Asalto bat lurrez erdi estaldirik, aren zangoari tirota ekin geuntzen.

Urantzu-n gengoan, iñoz ez lako bakean bizi gintzazan. Eta angengoanean, Donostia-ko egunkarian gure barri ta albisteak etorzan, nirearekiko piti bat nasturik. Nire etxekoak eta lagunak batzuk bidean jarri ziran, ni billatu eta aurkitzeko. Eguna Donostia-n emon eben erdi zoraturik arat eta onat, gora ta bera, esker eta eskumara itaunka ta galdezka. Azken batean Urantzu-raño etorri ziran da, Urantzu-n aurkitu ninduen.

Gauerdia joanik egoan. Koartel egiten eban etxea aurkitu, eta ango nagusi euskeldunari nitzaz galde egitean, beingo baten aurkitu ninduen.

Lotan gengoan, eta alako batean, ganean neukan berogarria kendu eustan da, onan iñoztan nagusiak: «Mutil, jagi adi, ire billa etorri diran lagunak dozak emen da. Nik, ezetz, berak baietz, jagi arazo nindun, sakaldera eroan begiak garbitzeko ta, artan ari nintzanean, Biktortiano Egileor lenengo, bigarren F. Eguileor eta aita irugarren zetorkidazan. Gauerdi ingurua izan zan, lurrean etzun gintzazan da, txutxu-mutxu eta txitxi-mitxi emon genduzen eguna zabaltzeraño orduak.

Egunabarraz batean batzuek itxarrik, bestetzuek lotan, gu be jagi gintzazan, gosaria artu ta asi ziran etxeko eta lagunak etxera biderako agiriak antolatzten. Egitekoak ziranak eginik, astelen gau illunduan berretxaratu nintzan, sei illabete andi, etxetik at eginik.

Orduan izan ziran izparringien bidez, gizon ospetsua egin ninduen. Bilbo-tik batek, Santurtzi-tik besteak, an gudaketan itxi nebazan mutillen barri jakiteagaiti, egunero nebazan urrutizkiñez deiak guraso, anai-arreba, edo ta andragein batek biotz urratuzko deiak. Bat il zala, bestea bizi zala, an eragoiola ta abar, orreik ziran nigandiko erantzunak.

Millaka txera ta ongi-etorriren artean, i lakorik etxagok besterik, zenbat biderrez entzun neban, Jainkoak bakarrik daki. Dagonil eta irailleko egun batzuek neure errian igaro nebazan, Igorrigoi-koa etxean, koarteltzat aukeratua izan zan da, erria zaintzen.

Gudarigai batzuek bai ebiltzazan. Artea-ko abadegaien etxean gudaroko gertakisunak eginten da, ni bere arako nintzan.

Bat, bi, iru, lau, eskuma, esker, tinko t-abar ibiliz gero, Bilbo-ko Basurto-ko gudaletxera giñoiazan izkillu barri-barrien billa.

Izkilluek lepoan geunkazan arren, izan genduan ikasibearrekorik. Gudaritzan iñoiz izangabea bazan bat, bestea ostera aspaldiz ezer ikus gabea, gadaketan egiteko ametsik burura iñoiz ekarri ezebana. Illa bete bat lenago izkilluaz ibilia neu nintzan.

Txispaz eta bear genduzanakaz orniturik, eta Euzko Gudariak abesturik, lenengo ager-aldia Artea-tik Igorre-raño egin genduan. Begiratzallen begirik asko ezoturik, irri saminkorra, atsekabetsun.

Urrilla-ren laugaren goizez Eibar-en gora giñoiazan, Elgeta-raño. Emen, berebilletatik jatsirik, larrri eta esturik izan genduan, gure burua Partaitxi-n edo inguru aretan tinkotu genduan arteño. Sua, beruna, artega, urduria ta egonziña zan, dana.



Azentzio aldea tirokatzen genduan, an egozenak, gu, eta alako batean, eskumaldetik gora ta gorago Intxorta-ra etorren etsaia, aurrez eta atzez, gu zuzitu naiaz.

Illunduko zan arteko, okada bizian egozan gure izkilu barri areik, jaurti ta jaurti. Arratiar eta Intxorta-egian izan ziranakaz, etsaia atzeratu eben. Txapelgorriak izan ziran. Gure bizkarraraño etorririk igesian-egin ezin dagikienaz, illak eta atzikatuan izan ziran.

Partaitxi-rako bidean eta egun berean il euskuen Artea-ko Azpitxueta-ko Pernando. Eta arerik gabeko orma-zulotik tiroka nebillanean sudurrean zauritu ninduen, ni bere. Beste zauriturik ba izan, zauritu andikoak izan ezarren. Egun a, urriaren laugarrena, Garaitza-eguna bezela geuretu genduan.

Loguraz eta lorik eginbarik, bustirik eta legorrik, gosez eta beterik, igaroten genduan areitako goiz lanbrotsuan Pernando Eguileor-en, tenientearen deia izan genduen Pedro Ipiña-k eta biok: Agirre Lendakariaren inguru-minguruak zaintzen joango zan, Pedro; ni, barriz, guda-sail barri batera. Baietza biok andik izan eben, baiña ebatziten gengozanean, lurrez beterik egozan sorroak berun batek zearkaturik, gar-azurrean, kokotean jo nindun. Ezan izan arazo andirik.

Bai-ebiltzazan gudariak arratikide gudariak mustur batean da bestean joten, an artu ta emon emoten, kokoteko miñlez nintzanean.

Agur negion, agur Arratia-ko Eunkiari, Rebelión de la Sal-ea sartu nintzan baiño len.

Oraingo Guda-Saillaren etzauntza Lersundi-ko ikastoletan dogu, eta egun aratarte ezagutzen ez totazan zenbait nagusi, ainbat txiki, eun errietako gudarigai barriak ezagutzen nago.

Ermua eta Eibar-go inguruetan, lañoz estaldu-rik zan basoan luebakieta giñoizan batean, gure zurtasuna baiño andiagoa izan zan txapelgorriena. Oneik eskuratu eben utsik eta iñorga-





berik izan zan leubakia ta baso-bizkarra. Gorantz egin genduan baiño askarrago gentozan beruntz, lañoz lagundurik eta, arerio arengadik igesian.

Ermua-tik igarorik iguruan egoan pagadian estzan gintzazan arnasaz barritzeko, baña egazkinek baten da birritan erailketak eta zuritu pilla egin euskuen, norako ta zertarako itxi ginduezan ezgenkiaririk. Antxe ondatu gintzazan.

Gernika urratu eta erre, zeatu ta ezereztu eben eguna zan da, nondik nora genbiltzazen askorik jakin barik, Gernikara jo genduan.

Iru lagun gintzazan aurreguneko janari otzez, bideak betean ibil ta ibil genbiltzazenak. Beste enparauak andik, gu emendik, bakoitza al eben bibeetatik.

Gernika illunik egoan, ikusten zan nagusitasuna suaren lorratzak ziran. Etxeak lurrera etozan suaren eragiñez, kale-bazterretan soloan zaputzak erretan ba-egoz bezelatzu eunda oial surtan txir-txir, tximist-argirik iñon be, ez. Gernikaren azken-egun arek, lurrikara irudian.

Esturik eta unduriturik gengzan Gernika-ko gaurik baltzenezan, lurraren erraiek irauntsiko eta gaituen bildur-ikaraz.

Lekaidetxe, ikastetxe, edo eliza antzerakoan gaua igarorik, goizeak goizik Bilbo-n nengoan, barriro bere. Bi-iru egunean alkartu gintzazan, barriro bere, mendirako.

Etxano-ko basoetan (emen zauritu ninduen, besoan), Ubide-atik aurreago eskumatara diran Okela-a eta Artxanda. Laugarrenez, Artxanda-n zauritu induen, ta arreskerotik ez neban tirorik eta bonbarik jaurti.

Artxanda-ratzen ziran egazkiñez, 3, 6, 12, ez-ziran loarazolariak. Geienetan iruen bat etozen lenengo, gero sei eta bederatzi be bai, dana zan zuloa, dana lurra, aizean dabillen orbela ba-litz, dana izaten zan egoneziña.

Bilbo-n batera ta bestera gau luzea, gau luzegia emonik, ez-zan izaten so egiten maitagarria, Zabalbide-n bera etozan berebillak illez beterik, odolatan ikustea.

Illuntzean eguna, Begoña ingurumarian bizi izan ziran asko, al ebena lepoan arturik, Santander-erako bidean oiazan, etxeak bertanbera itxirik, noiz itzuliko ziranik jakin barik. Agur egin barik aldedubear arek, zenbak eta zenbat begitara negarra ekarren.

Argirik iñon ez, goiak goibel, bea larri eta noizik bein "5gn kolunakoen" tiroen batzuk entzuten genduzan. Zauritu eta gaisoak urrengo egunaren goizez, Santander-erako bidean jarri gintzazan. Agur dagiot Bilbo-ri, agur dagiot Bizkaia-ri eta agur dagiot nire jayoterriari.

Santander-go Laredo-n gengozan goiz baten, txapelgorriak, alemanak, fazistak garaitu ebela Bilbao entzun neban. Atsekaberik andianatariko zan egun aretarte.

(Jarraituko da)

# EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN URTEKO BATZAR NAGUSIA

(Bilbaon 2.013n Epaillaren 21n)



**B**i milla eta amairugarren urtean Epaillaren 21an arratsaldeko zazpiterdiak zirala, Euskerazaleak Alkartearen Zuzendari Batzordeak, aurretiaz deia eginda, Batzar Nagusia egin eban.

Bilbaon, Kolon de Larreategi kaleko 14n zenbakian, 2gn solairuan dagon Euskerazaleak Alkartearen giza-etxean.

Batzar onetara, aitatzen diran batzarkideak batu ziran:

- Alonso´tar Margarita.
- Alonso´tar Miren.
- Garai´tar Jorje.
- Larrañaga´tar Itziar
- Arrieta´tar Koldobike.
- Arrieta´tar Itziar.
- Fernandez´tar Karmele.
- Egurrola´tar Iñaki.
- Barroeta´tar Klaudio.
- Atutxa´tar Paul.

## AURKEZPENA:

Leenengo, batzarrari asiera emoteko, Barroeta tar Klaudio Euskerazaleen alkarteko lendakariak batzarraren antolakuntza zelango baldintzatan egingo genduan adierazi euskun.

- 1.- Arrastion danori, batzar onetara etorritako ta etorri eikezanei.
- 2.- Guztiok entzun doguz Ruiz Mateosen izena ta bere bizitzako goraberaren askotarikoak.
- 3.- Batez be ezetu ta ikusi doguz bere lantegi, ta lantegi orrein erle-irudiaren ordezeko marrazkiak.
- 4.- Erle-irudiaren ordezeko izena da APIS(latinez), ABEJA (erderaz), ta euskeraz ERLEA. Izan be, marrazkiaren irudia ERLE batena da.
- 5.- Zer esan gure deusku izen orrek ? Zer APIS edo ERLEAK?
- 6.- Labur laburrean esan geinke gauza oneik adierazten deuskuzala: Lana edo lan egitea. Lan egiteko diran gizakiak, pertsonak. Eta batez be, lan eginda-koaren etekin edo emaitzak.
- 7.- Begitu daiogun egaz doan erletxu bateri: ainbatera doa, loretik lorara jauzika, aoko eztenxu miragarriegaz xurruapatzen dauela ondo jatorkon jakia, ta zabartu barik, itzuliten da bere erletokira, etekiña, emaitza, ezta. ugarituteko
- 8.- Alantxe egiten eban Ruiz Mateos bere lantegi edo empresatan.
- 9.- Eta erlearen antzera, EUSKERAZALEEN ALKARTEAK be.
- 10.- EUSKERAZALEK, ez dirutza egiteko. Etekin bikañagoa ataratako baño.



- 11.– Argiago esanda, nortasun arloan lan egiteko.
- 12.– Euskerazaleak taldearen arloa euskerean lan egitea da, euskerea nortasunaren susterra dalako.
- 13.– Zetarako batzartu gara emen?- Aztertu, arakatu ta ikusteko urtearen zear egindako lana ta eginbearra.
- 14.– Erletxu baten jokabidea kontuan izanaz. Eta ori goragarria da.

Ondoren, zutunik abestu euskun emen agertzen dan bertsoa :

## EUSKALDUN EZTIA

Goragarria dogu  
erlearen lana,  
loreartean, bizkor,  
egaz dabillena.

Ez dau gogoan artzen  
lore edertasuna,  
ezta nekegarritzko  
bide luzeana,  
ajola jako soillik,  
ezti barriena.

Bizitza luzerako  
bear da osasuna,  
ta osasuna eukiteko,  
bear odol ona.

Odol ona izateko,  
garbi ta txukuna,  
eztia dogu beti,  
janik ontsuena,  
bizi garan artean,  
zainduko gaituna.

## IDAZKARIA:

Atutxa idazkariak, aurreko Batzar-Nagusiaren 2011 agiria irakurri eban eta ontzat artu zan.



## 2.012ko DIRU KONTUA:

Karmele arduradunak auxe esan euskun:

Aurten be, betiko moduan etxeko kontuak emongo dautsuedaz.

Aurten igaz emon euskuen antzera be, dirua emoten ba dauskue, egutegia, ikasturtea, ipuin sariketa, web orria, euskal astea ta beste ekintza batzuk egingo dira.

Ekintza orreik egiteko, guk betiko moduan %'eko diru kopurutik 40'a ipiñi bear dogu.

Aurten be ordainketa aundiak izan doguz, etxeko derrama gogorak izan diralako, ta iru milla aurre-ratuta genduzala, 2012'an 10.606,29 euro ordaindu doguz.

Dagonillararte ez dogu amaituko.

Orregaitik illero milla ta piku ordaindu bear doguz amaitu arte.

Baimena eskatu genduan dirua eskatuteko, baña ez da izan bear, batzarkide batek 6.200,00 euro aurre-ratu dauskulako.

Baña diru ori astiro–astiro emon bear dautsogu, derramak amaitzen doguzanean.

Eskerrak emon, Aldundiari, Udalari, ta Batzarkide orreri .

Eta beste barik datorren urte arte.

Karmele Fernández (diruzaiña)

Eta Karmelek aurkeztu ebazan kontu oneik, ontzat artu ziran.

## URTEKO EKINTZAREN AZALPENA:

Eta datorren urrengo arlo onen azalpena, Barroeta-tar Klaudiok adierazi eban lendakari lez.

## EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN 2.012n URTEKO EKINTZAK

Adiskideok:

Urte guztietan lez, Batzar-Nagusi onetan, urte barruan egin doguzan lanen barria emoten dogu.

### ILLEROKO BATZARRAK eta URTEROKOA:

Utsik egin barik bete dogu illeroko batzarra eta urterokoa, Atutxatar Paulok gure bazkide eta idazkariaren BATZAR AGIRIETAN ikusi daiteken lez.

### IPUIN-SARIKETA:

Urte guztietan lez eginda, oneik izan dira aurtengo sarituak:

1'go SARIA: Murua tar Joxe Mari

2'gn SARIA: Merino tar Palmi.

3'gn SARIA: Legarreta tar Asier

4'gn SARIA: Lopez tar Aurora

5'gn SARIA: Ezkurdia tar Alfonso

### EUSKAL ASTEA:

Euskeraren Astea be ospatu genduan Zemendiaren

26'ko. egunetik 30eko egunerarte:

26.- Larrea tar Angel

27.- Atutxa tar Paul.

28.- Larrea tar Angel

29.- Barroeta tar Klaudio

30.- Barikuan Atutxatar Paulok bere bigarren berbaldia azaldu eban.



## TAKOA BIZKAIERAZ

Betiko lez takoa argitaratu dogu Bizkaiko Foru Aldundiaren diru laguntzarekin.

Diru laguntza eukiten badogu, jarraituko dogu Takoa argitaratzen, baña ori murrizten badauzkue ez da erreza izango guk bakarrik argitaratzea.

Aurten ez dakigu zer gertatuko dan; orregaitik Uztaillarte arte ez dogu ezer jakingo.

Gu, orritxuaren atzean agertzen dan textoa idazten dogu. Konturatuko zarie, baiña, urtero desbardiña dala, eta 365 zatitxu orreik idaztea lan aztuna dala, ez bardiña izatea gura ezkeroz.

Betiko lez, Takoak Durangoko Azokan, arrakasta aundia izan eban.

Jendea oitu da an eskatzen eta zuzen joaten dira Gerediaga Elkarteko tokira gure takoa eskatzera, baita Elkar eta Labayru gana be.

Gainera "Takoa bizkaieraz" eskatzen dabe.

Beste leku batzuetan be banatzen dogu: eskoletan, ikastoletan, parroki batzuetan (Iurreta, Gorozika, Zornotza e.a.) eta mugako errietan (Aretxabaleta, Bergara, Aramaiao, Motriku. Gasteiz, e.a.)

## EUSKERAZALEAK INTERNET'EN

Gure web orria ortxe jarraitzen dau, eta orain arte 300.000 bisitak euki doguz.

Eskatzen daben argibide barriagaitik, badakigu geiena, Unibertsitatetik eta orrelako lekuetatik datozela ainbeste bisita. (Deustu eta Errioxako Unibertsitate edo goi-ikastetxeetatik)

Barruen daukazan argibide barriak obetzen saiatzen gara, naiz eta batzuetan antzekoak dirala uste izan.

Prest gagoz beste lan batzuk jartzeko baña "baime-nak" bear doguz eta ez da erreza ori lortzea.



Baten batek or ipintzeko moduko zeozer baleuko, prest gagoz artzeko.

Ez dauka zetan bizkaieraz izan bearrik, “erriko euskerea” izanez gero.

### **IRAKASKINTZA:**

Urte guztietan lez, jarraitu dogu asieratik Alkarte onen elburua izan dan Euskera irakastea.

Ikasleak aspaldian ez dira gitxiagotu eta ez ugaritu be. Irakasle betikoak zintzo jarraitzen dabe.

### **“ZER” ALDIZKARIA:**

Gure “ZER” aldizkaria illero agertu da eta asko poztuten gaitu lan onek, bizkaieraz argitaratzen dan aldizkari bakarra dalako.

Argitaratzeko ez daukagu arazo aundirik, eta errietan ezin dogu kobrau, gitxik ordaintzen dauelako BBK´ko gure kontuan.

Eskerrak irarkolako lana Foru-Aldundiak ordaintzen dauskula.

Alan da be, aurrera egiteko asmotan gagoz. Eta zuk be, euskera bizia, errikoa, maite dozunez, lagundu zeinke modu onetara:

- Bazkide barrien izena emonaz.
- ZER aldizkarian atarateko lanak bialduz.
- Ekonomi arloan eskua luzatuz. Eta diru biltzaleak aurkeztuz.

### **ETXEA:**

Ba-daukaguz arazoak etxe zarra dalako, eta “derramak” edo ordainketak aundiak diralako. Igaz 2012 eta 2013an ordainketa asko egin bear dira, eta orregatik derrama andiak eukiko doguz.

### **ZUZENDARITZAREN EGOKITASUNA:**

Ontzat artu ziran batzarkide guztiok, eta eten barik jarraituko dabe aurrerantzean.

Amaitzeko, eskerrak emon bear dautsoguz Bizkai-ko Foru Aldundiari ta Bilboko Udaletxeari.

Ez gitxiago idazleai, irakurle eta lankide guztiai. Bai ta eskerrak be irakasle eta ikasleei, zintzoak izategaitik.

Ekintza guzti oneik, ontzat artzen dira.

### **GALDE-ERANTZUNAK:**

Igaz il jakuzan; Jon Malaxetxebarria, Josu Arenaza, Agustin Arrien gure idazlea eta Xabier Oleaga.

### **AMAIERA:**

Klaudio lendakariak, batzarrari amaiera emoteko zutundu zan, eta bertso eder au eskeifni euskun:

#### AMAIERAN

Eskerrik asko, zuri,  
erletxu maitea,  
duban damozulako,  
gozozko jakia.

Zugandik, zorionez,  
dogu ikasia,  
euskaldunak izanaz,  
euskera zaintzia,  
euskera izan dadin  
euskaldun ezta.

#### MUNETXE

*Bil- 2013-03-21*

Beste barik eta gaueko zortzi ta erdietan zirala, batzarrara amaitutzat emon genduan.

Klaudio  
Barroeta Amorrortu  
LENDAKARIA

Paulo  
Atutxa Agirre  
IDAZKARIA



# IZADIA ZAINDU

## EUSKAL TOKI-IZENAK

## MUNDUAN ETA

## EUSKAL EDESTIA III



#### **4. Homo Sapiens edo Kromañoi gizarte areik, zelako jendekuntzagaz osotu ebezan, orduan ezagutzen ziran Afrika, Asia ta Europako lurraldeak.**

Afrikatik mugi aldiak asi ziranean, jakintzaren arloetan: Euskerazko leen Izkuntz ta ekanduzko oitura bardiñ batetik zabaldu ziran zalantzarik gabe ta milla urte asko ondoren jakintzazko azturan, leiñuak auzotasunaren lurraldeko antolamenduan kokatuta geratu ziran bakoitza beren Batzar Nagusiko babespean.

Mundu bizitsu ta aldakor oneitan, ekintzazko arduran eta berezko denboraren larrialdiko egoeratik babesteko, leenengo ikasten doguna, orekaren ego-

kitasuna da, Izadi onen indarrari, gordin gordiñik aurka egin ezkeru, gu baiño askoz geiago dalako.

Ortik asi giñan sendiko alkartasunetan babesten eta gero auzotasunezko lur leiñuetan Afrika, Europa ta Asiako lurralde guzti orreik egokitzen.

Milla urte askotako aukera orreitan lortu eben orduko leiñuak, gaur oraindiño Euskalerrriak daukan, euren nortasunezko izkuntzak eta oitura demokratikoak, gure lege zaarretan daukaguzanen antzera.

Izkuntza arloetan baiña, orduko lurralde orreik oso zabalak ziralako, izkuntzaren jakintzazko aztura arloan gaztelu bat bakarrik ezin eben egin, eta orko bidetik asi ziran berexkatzen antzeko izkuntz desberdiñetan.

Alan da guzti, nai ta gizarentzat, ekanduan eta oiturazko oiñarri batekoak izanda Mundu zabal orreitan, mendi, aran, euri, izotz, egugiro, lurraren otz-berotasun, abeldi ta loreki antzeko ezberdintasunai, bizi ekintzaren bidez gauza guztiei bereziki izen berexiak emon, aukera barri orrek ez dau nai esan, guztiz banakatu egin zirala, leiñutasunezko auzotasunaren urbiltasunak arremian edo alkar ikusteak zaindu egiten ebazalako.

Gure arbasoak, milla urte askoren aukera orreitan eraiki eben, gaurko jakintsuak esaten daben, eta eurentzat: Aurreko JENDEKUNTZ GALDUA dana.

*Baleiteke, baiña Mundu onek daukan gizaren jarraikuntza ikertzeko ez dago ezelako mirari ez antzekorik, nai ta ainbeste antzeko izkuntz eta toki izenaren arrasto eukinda.*

Gaiñera, Felix Zubiagak esaten dauan antzera: “Euskerea bere jaiocera argitzen dauan IZKUNTZ BAKARRA DALA”.

Esan onekaz, guzurra dala esan leike edestiaren azalkean gaurko edesti ta izkuntzalarien artean oraindiño ainbeste maltzur ganorabako ta irabazkoi<sup>(1)</sup> elementu egotea, guzurtasunezko illuntasunak nastuta iraun egiezan, eta almen guztiagaz ibiltan dabizela esaten dotenean, ez dot esaten lengo ta gaurko jakintsu guztiak dirala errudunak. (Naita geienak izan).

*Menperatzaille aundi orreik Munduko gizarte eta gauzaren egiakaz sortu eben illutasunezko naastebozrazteko zirriborrotik, eta ekanduz edo berezko jakintzazko oitura onean ibili diran edesti ta izkuntzalari, denboran euren azterkuntzak luzatu dagiezan, egia dana frogapen edo siñispidearen eragozpeneko eskaeran debekatuta argitzeko, ez bakarrik jakiñezko utsetik asi bear ebezan lan orreik egiten, guzur eta illuntasunezko zirriborro orreik, margoztuaren emandaldi askoko azalaren goialdetik, kontuz eta banaka asi bear ebelako egia askatzen, gero bigarren zatian adieraziko dodan lez.*



(1) Irabazkoi=interesados.

Norkeriaren maltzurtasunezko guzurak irabazki politiko bihurtuta, ikertzaizko lanak euren aurrean aurkezteko, eragozpen aundiagoagaz argitu bear izan eben.

A ta guzti, euren jakituri aundian egindako ikerkuntzazko lan guztiak, ez ziran edozelakuak, goian esan dodan lez, asierako Homo Sapiens, Kromañoi edo leen Euskal egokitasunera, gura nai ez bideratuta geratzen diralako.

### 5.- Munduko gizatasuna´ren etorki edo guraso-ondoko izatea.

Emen, au da galdetu bear doguna: Zergaitik, Santimamiñe, Ekain ta Altzarriko arzulo edo leize zuloetan marraztuta agertu diran irudiak “Munduko Gizatasunaren ONDORE-KUAK” izendatu.

Eta gure artean izkuntz zaar eta ederrena dana, irudi ulermentzeko mintzo berbearen leenengo itz otsak Euskeratik argitu leikezenak eta orregaitik garrantzi aundienekoa izan da “EUSKEREÀ”, ZERGAITIK GIZATASUN ONDOREKUA IZENDATU EZ ?.



Erri legean, edo Demokrazian sartuta gagozela esaten dabe batzuk, baiña sekula ez gara aukera orreitan ezarriko, antziñatik etorten dan norkeriaren zentzuzko maltzurtasunean geiegi kokatuta gagozanen artean.

Laster izan bear dana, Jainkoaren Lege aurrean, txarto egiten doguzan gauza guztiagaitik mugatuta egonda, premiazko larritasun oneri irtenbide bat emon bearrean gagozelako.

Euskaldunak, ez doguz galdu bear aurkezten jakuzan aukera oneik, gure nortasunezko eta ordeizko ardurak berreskuratu gura badoguz.

Orretarako baiña, euskalerriaren askatasunezko elburuari danok batera begitu bear dautsagu, nai ta politikaren ezberdintasun talde kideetan lan egin.

Beti, lelokeri barik, eta buru belarri sartutako ekin-tzan ! gure arbasoak emon euskuen “Lege Zaarraren” edo erri legezko<sup>(1)</sup> zentzuaren ardurean lan eginda.

### 6.- Arri aroan, euskeraren mintzotasuna nondik nora egiten zan eta erro bardiñetik sorturitako ezberdintasunak non ?.

Olazartar Martinek, beti esaten eustan, idazten doten guztia, erabateko zorroztasunaren lanean egiteko.

Baiña zer esan, adibidez: Zezarek, leenengo aipamenean esaten ba eban, Euskerea Garona ibaitik bera berba egiten zala eta bigarreanean Loira ibaitik?

Gaiñera gaur jakinda, Eskoziaren ugarteetan goialdeko Kaledonian Piktoak bizi zirala eta eurak egindako arri landuetan aurkitu diran idatzitako izkiak Euskerazkoak dirala ?.

Arri baten adibidez Piktoz idatzitakoa: “doanna-ta-enakoteketa” beren irakur agiria: “doana da Eneko t´akaitsua” eta Gaztelera irakurrita: “el que se va es Eneco y la preocupación”.

Eta Piktoak IXn gizaldian Eskozez Keltiarrakaz bat egin ba ziran, nortzuk bizi ziran an Keltiarrak joan arte ?.

Orregaitik, Mundu zabalean gaur agertzen diran sustrai bateko leen Euskerazko toki izen eta itzetan, gero argituko dodan lez, orduan ezagutzen zan Omo Sapiens gizarteetan: “Atlant Itsasotik Indiaraiño ? eta Britaniatik Afrikako zein lekutaraiño ?.

Eta Euskerearen jendekuntz<sup>(2)</sup> osoa, nik aurkitu dodazan zeaztasunezko zentzutik, Atlant Itsasotik, Beljika, Alemania Italiaraiño mugatuta eta goitik bera, Eskozia edo Britaniatik Kadizeraiño.

Ez da arritzekoa nik emen esaten dodana, itaun gogorak agertzen diralako, adibidez: “Zer ziran Tarteso ta Iberoak Euskaldunak baiño eta zer Keltiar, Sumer ta Etruskotarrak ?.


Nortzuk eta nungoak ote izango ziran Indoeuropeotarrak?: gizaren Nortasuna ta daukazan bereiztasunak, bakotzak bere izkuntza ta bizi dan ingurutik artzen dauana izan ezkeró?

Europa, Asiaren ego mendebal ta Indiaren ekialdeko iparraldean egon ziranak.

Eta izkuntz oneik, ainbesteko arremán aundiak eukiteagaitik, ele jakitunai burukomin aundiak emonda, euren azpiko bardintasunak izkuntz bakarretik sorturikoak zirala emoten eutsen.

(1) Erri-legezko = democracia. (2) Jendekuntz = civilizaciòn





Zelako izkuntzatik baiña ? : Omo Sapiensek euki eban izkuntzatik zalantza barik, orain beste gauza bat esanten ba dabe.

Niri, indoeuropeoaren itz adimugaren gora beran, ele jakintzaren esku antze edo trebetasunean ezer jakin gabe, zentzuzko lojikan egiten nagoen billaketazko lan onetan, nastutako edo zuzenezko ez diran gauza asko agertzen dira, adibidez: Zergaitik Gaztelera eta Katalan izkuntzak, indoeuropeoarrak ?.

Ez ziran sortu biak, erromatarrak ekarri eben Latin eta Euskeraren bitartez ? . Edo, latiñagaitik ?.

Zorro orreitan danak naastuta sartzea baragarria da, gaiñera jakinda, latiña, Etruskoak Griegoen izkitegiaren laguntzagaz, euren edo Italiako izkuntz baten batetik sortu ebela ta Etrusko izkuntza oiñarrian Euskerearen anai edo antzekoa dala.

## Nortzuri esan eutsoen Indoeuropeoak zirala ?.

Nik daukidan iztegiak esaten dau: “Semita, Uralo altaika eta Malayo polinesian beste batzuen laguntzan ondo egokituta egon ziran izkuntzak baiño oso ezberdiñak zirala eta alkartasun orreïn mordozkak: “Albaniar, Anatoliko, Armenio, Baltiko, Kelta, Eslabo (Errusitar ta Txekoak sartuta) Germanikoak (Ingeles, Aleman eta Eskandinabiako izkuntzak sartuta), Griego, Indoirano (Sanskrito, Hindi, Persak eta abar), Italiko (Latin eta espainol, frantzez, italiano, katalan, gallego, judu espainola, Zerdeñako ugartean sardo, Adriatiko itsas baztarran dalmata eta abar latin kume bezala)”.

Eta Indoeuropea baiño beste ariñagoko oinkada bat emonda, Arioak nortzuk ote ziran?: Indoeuropeoak baiño ariñago “Asiaren erdian bizi ziran leiñuai esaten eutsen”.

Oneik, lur langille ta abelzain edo artzaiak izan ziran, eta ez eben euki, orduan Babilonian, Ejipto eta Sirian euki ebezan oroikarri lakorik eta irakurri ta idazten jakin gabe, euren leiñuen antolakuntza etxegabeko edo erdi alderraiezkoa<sup>(1)</sup> izan zan.

Ario itzak, indoeuropeoaren erri ta izkuntzak edestian mugatzeko, ez dauka ezelako zentzurik.

1.823 eta 1.900 urte artean Max Müller aleman ele jakitunak izkuntzaren bilbe<sup>(2)</sup> edo aldakuntzak argitaratzeko alegiñean, “ario” itzari ospe ta zabal-tasuna emon eutson, beste batzuk, Europak euki ebazan nortasunezko arazo guztiak adierazteko ibili ebena.

Egoera orreik, “nazi” faziztak aukeratu ebazan, Ario itza, ordezko “indogermano” edo “judua ez dan” itzan ulertu daiten, eurak endaren gora beran euki ebazan eziñ ikusiak<sup>(3)</sup>, arrazoitasunean ezartzeko.

Begitu ortik aurrera zer egin eben Aleman faziztak Munduko bigarren gudan.

Eta arrazoi au argitzeko, Keltiar, Eslabo ta Germaniar izatasunak azalduta, adibidetu egingo dot.

Nik, danak sartuko neukez keltiar arlo bakar baten, oitura antzeko baten ibili ziralako eta euren izkuntzak alan emoten daualako.

(1)Erdi-alderraiezko=semi-nòmada (2)Bilbe=evoluciòn.(3)Ezin-ikusiak=antagonismos.

Adibidez: Oso indartsu eta mobikorrak izan ziran izatasun orreik, baiña, alderraeizko ekiñaldi orreik ez eutselako izten euki ebezan sinispideak sendotzen, orregaitik, nai ta indartsuak eta euren azturan asko ikusikoak izan, ez eben gizabideko<sup>(1)</sup> jendekuntzan<sup>(2)</sup> jakintzazko indar geiegirik euki.

Indoeuropeoak jendekuntzazko jakiturian be mailakoak izan edo eta neurri aundi baten Omo Sapiens asieraren oiturari jarraituta askatasunean oiñarrituta egon ziralako, euren oldozmeneko asmakizunetan, ez ziran eltzen besteak morroitasunera menperatzen.

Eta orduko denboretan, zalantza orreitan kokatuta egon ezker, erromatarren antzera, mendeetan azkartasunezkoak ziranagaitik bultzatuta, ia aienatu ziran Europaren berezko erritarteetan, Aleman eta Eslaboak izan ezik.

Azalpen orrek, iru irakaspen argitzen dauskuz:

- a) Milla urte askotako mobikortasun orreik Sinismenetan ez eutsela itzi sendotzen.
- b) Euren arteko izkuntzak zirriborrotu egin ebezala.

d) Demokrazizko askatasunean erdipurdiko aukera baten geratuta, ez ebela indarrik euki, menperatzailetasunetik urten eta euren sinismenetan sendotzeko.

Emen Alemanakaz salbuespen bat egin bear dogu, gero Erdi Aroan I Karlosen denboran ta Alemaniatic ekarri ebezan aolkulariak, Nafarroa gaztelarraigaitik menderatuta egonda, oneik, Zisnerosek euki eban menperatzaile batzangotasunezko eritziaren aurka, Nafartar erregeak euren ezar lekuetan ezartzeko aolkua emoten eutselako.


Grezia ta Euskalerrriagaz ez zan gertatu bardin, euren lurraldeetan kokatuta iñor menderatzen ibili barik, sinismenean indartuta geratu ziralako. Baiña azalbide ori, Europaren zeazkuntzan ezartzen dalako, beren edestiko lekuan adieraziko dogu.

Orain indoeuropeo onein artean dagozan asierako Omo Sapiensen itz ta toki izenak aurkezten joango gara.

**Atutxa'tar Paul**



*Zornotza'n 2.013'an Urtarrilla'ren 15' ean*

(1)Gizabideko=cultura. (2)Jendekuntzan=civilizaciòn.



# Euskaldun barrientzat ikasten

## Zazpi utsak



## Sudoku

	7	4	2		9	8	1	
5	9						6	4
		5	6		3	9		
	2			1			8	
		8	4		5	7		
8	3						2	6
	5	9	3		1	4	7	

2	5	9	3	6	1	4	7	8
1	4	6	8	7	2	3	5	9
8	3	7	5	9	4	1	2	6
9	6	8	4	2	5	7	3	1
4	2	3	9	1	7	6	8	5
7	1	5	6	8	3	9	4	2
5	9	1	7	3	8	2	6	4
3	8	2	1	4	6	5	9	7
6	7	4	2	5	9	8	1	3

### ARRPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar .....

..... kalean (auzoan.....) zenbakian

..... errian, ..... errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko ..... diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,

an daukadan     zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN **"ZER"**. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

Garaziko erria  
benedika dadila  
euskarari eman dio  
bear duen tornuia.

Euskara, euskara,  
jalgi adi plazara.

Bertze jendek uste zuten  
ezin eskriba zaiteien  
orai dute porogatu  
enganatu zirela.

Euskara, euskara,  
jalgi adi plazara.

Bertzeak orok izan dira  
bere goien gradora  
orai ura iganen da  
bertze ororen gainera.

Euskara, euskara,  
jalgi adi dantzara.

Orai dano egon baiz  
inprimitu bagerik  
i engoitik ebiliren  
mundu guzietarik.

Euskara, euskara,  
abil mundu guzira.

